

Edizioa lehenik eta behin aukeraketa prozesu bat da. Horrela irudi eta soinu batzuetatik abiatuz eta aukeraketa prozesu bat eginez, gure produktua osatuko dugu. Edozein aukeraketa prozesutan elementu batzuk erabili eta beste batzuk baztertu egingo ditugu. Horrez gain, aukeratutako irudi eta soinu horiei orden eta iraupen konkretu bat emango diegu gure ikus-entzunezko produktua lortuz.

Fianl cut pro programa, edizioa ahalbidetzen duen software bat baino ez da. Asko daude gaur egun merkatuan eta denak dira erabileran antzerakoak, desberdintasuna lanerako erabili ditzaketen formatoetan eta lanerako arintasunean dago batez ere.

Beraz, horrela hartu behar da, bitartekari bat bezala. Sarritan bitartekoarekin itsutzen gara. Helburua behin fase hori pasatuta ikus-entzunezko edozein produkturen gauzaketarako ezinbestekoa den edizioan sakontzea da. Eta hor daukazuena bitartekoaren azalpen txiki bat baino ez.